

Charlotte Fallon-en

# KOX-KOX



**PARAISO ANTZERKIA**

**HAUR ETA GAZTEENTZAKO ANTZERKIGINTZA ZENTROA**

Dirulaguntzaileak:



MINISTERIO DE EDUCACIÓN Y CULTURA  
Instituto Nacional de las Artes Escénicas y la Música



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO  
KULTURA SAILA  
DEPARTAMENTO DE CULTURA



Ayuntamiento  
de Vitoria-Gasteiz  
Vitoria-Gasteizko  
Udala

Laguntzen du:



THEATRE DE LA GUIMBARDE

Honako hauekin elkartutako  
konpainia da:

**eskena**  
Empresas de Producción Escénica Asociadas  
Produzio enpresa elkarriz



## AURKEZPENA

---

*Teatro Paraisok Belgikako Théâtre de la Guimbarde konpainiarekin elkarlanean produzituriko ikuskizuna.*

Ikuskizun hau “Ikusle Txikiak” Europako 2000 Proiektuaren barnean kokatzen da. Proiektu honetan hiru konpainiak hartzen dute parte: Théâtre de la Guimbarde (Belgika), La Baracca (Italia) eta Teatro Paraíso (Espainia), eta Europako hiru kultura hiriburuk: Brusela, Bolonia eta Santiago Konpostelakoa.

TEATRO PARAISOK batez ere Haur Hezkuntzako eta Lehen Irakaskuntzako Lehen Zikloko ikasleei zuzendutako ikuskizun berria produzitu du. TOC-TOC/KOX-KOX lanean ikusle txikienen beharretara egokituriko lengoia poetikoa sortzen ahalegindu da. Halaber, umerik txikienek elementu dramatiko desberdinekin ezartzen dituzten loturak aztertzen jarraitzen dugu.

## AURREKO IHARDUERAK

---

### 1. “IREKI ZAITEZ, ARRAULTZATXO, IREKI ZAITEZ” IPUINA.

KOX\_KOX ikuskizunara joan baino lehen, zuen ikasleei historio bat kontatzea proposatzen dizuegu.

“Txitotxo” bati buruzko historioa. Bere arraultzatik atera nahi ez duen txito bati buruzkoa.

Ahoz kontz dezakegu historioa, laguntzarik gabe, baina erabil ditzakegu objektu desberdinak kontatzen laguntzeko. Nahi izanez gero, “Aita oilarra” pertsonaia sar dezakegu ipuinan, beste eredu bat izateko.

### “IREKI ZAITEZ, ARRAULTZATXO, IREKI ZAITEZ”

---



*Behin batean ama oiloak arrautza bat errun zuen, baina ez zekien nola ireki.*

*“Agian hitz egiten badiot, irekiko da”, pentsatu zuen.*

*“Kaixo, txikia”, txio egin zuen amoltsuki.*

*“Zatoz amatxorekin”*

*Eta hiru egunetan zehar hitz egin zion, baina ez zen ezer gertatu.*

*“Agian jatekorik ematen badiot, irekiko da”, pentsatu zuen ama oiloak berekiko.*

*Eta fideo batzuk egosteari ekin zion...*

*...eta prest egon zirenean, arrautzaren gainean bota zituen.*

*“Egun on, txikitxo! Zatoz amatxorekin, jateko ordua da!”, esaten zion.*

*Beste hiru egunetan zehar saiatu zen, baina ez zen ezer gertatu.*

*“Agian bero mantentzen badut, irekiko da”, pentsatu zuen, eta hasi zitzaion artilezko burusitxo bat ehuntzen...*

*Eta bukatu zuenean, arrautza estali zuen. Bigarren egunean beste bat ehundu zion, eta hirugarrenean beste bat gehiago. Baina ez zen ezer gertatu.*

*Ama oiloak beste ideia bat izan zuen:*

*“Beharbada amoltsuki urruma egiten badiot, irekiko da”.*

*Sehaska bat egin zion orduan lastoz, eta bitxilorez apaindu zuen...*

*...gero arrautza jarri zuen barruan eta urrumaka hasi zitzaion. Hiru egunetan zehar aritu zitzaion urrumaka, baina arrautza ez zen ireki.*

*Ama oiloa oso kezkatu zegoen. “Ama maitea!”, kexatzen zen. Nire txikiak ez du atera nahi. Zer egin behar dut?*

*“Apika ereiten badut, hazi egingo da”.*

*Zulo bat egin zuen, lurperatu zuen hazi bat izango bailitzan eta...*

*...ureztatu zuen.*

*Egunero ureztatu zuen hiru egunetan zehar, baina horrela ere ez zen ireki arrautza.*

*Ama oiloa oso goibel zegoen. Denetarik egin zuen baina ezerk ez zuen funtzionatu.*

*Begietan malkoak zituela, arrautza besoetan hartu zuen eta etxera joan egin zuen.*

*“Ez zaitut inoiz ikusiko, ene txikia!”, esan zuen negarrez. “Ez gara inoiz elkarrekin egongo! Agur!”*

*Ama oiloa neka-neka eginda zegoen. Beraz, ohean sartu zen arrautzarekin eta lo geratu zen.*

*Hain zegoen nekaturik, non hiru egunetan zehar lo egin zuen.*

*Hirugarren egunean arrautza ireki egin zen eta bertatik txita bat atera zen!*

*“Kaixo, amatxo!”, esan zuen txitak.*

*Ama oiloak hain zegoen harriturik ezen hau besterik ezin izan baitzuen esan: “Kaixo, maitea! Ongi etorri etxera!”.*

*Eta hau honela bazan sar dadila kalabazan eta irten dadila Gasteizko plazan. Baina badira haurtxoei, amatxo eta aitatxoei buruz hitz egiten diguten beste istorio asko, liburu baten orrialdeetatik, koadro batetik, kanta batetik..., eta Antzerkitik.*

*Han, Antzerkian, Haurtxo Jauna bizi da, eta zuen zain dago bera jaio baino lehen gertatu zen guztia kontatzeko irrikitan.*

# ***OSTEKO IHARDUERAK***

---

## **1. OROITZAPENEN KUTXA.**

KOX-KOX horrela hasten da:

*(neska-mutil guztiak beraien lekuetan eserita daudela, Haurtxo Jauna eszenatokira igo eta "Oroitzapenen Kutxa" hartu egiten du. Bertan zer dagoen begiratzen hasi)*

*(Aita eta ama, momentu batez hontaz ohartu eta poliki-poliki harengana hurbiltzen dira "zertan ari da" beraien artean galdetuko baliote moduan. Eszenatokira igo eta jakin minez:)*

AITAK: Zertan ari zara?

HAURTXO JAUNAK: Kutxa honetan haurtxoa izan nintzeneko oroigarriak gordetzen ditut.

AMAK: Bai!!! Erakutsiko??

HAURTXO JAUNAK: Ongi da!! Baina lasai eta ixil - ixilik egon behar duzue...Oroitzapenak xaboi - ponpen antzekoak bait dira....hauskorak oso eta beraz edozein momentuan desagertu daitezke.

AITAK ETA AMAK: Ados! Lasai eta ixil - ixilik. (Keinua ikuslegorantz luzatuz)

HAURTXO JAUNAK: Begira!! Hau nere lehen pilota izan zen. Izebak oparitu zidan.

AITAK: (orrazia atereaz) Eta orrazi honekin zu orrazten al zinen??

AMAK: Ez!! Bera txikiegia zen. Bere aitak edo amak orraztuko zuten.

HAURTXO JAUNAK: Hara zen dagoen hemen ... (kolonia potea atereaz eta besteei usaintzeko emanaz)

AITAK: Kolonia pote bat da.

AMAK: Haurtxo usaina dario. MMMMmmmm...

AITAK: Eta hau...hau zer da?

AMAK: Kariloi bat da!! (aitak kariloia martxan jartzen du).

HAURTXO JAUNAK: Haurtxoa nintzenean musika honekin, oso eta goxo - goxo loak hartzen ninduen.....Hau oroitzapenak!!!!

AITAK: Aizu.... gauza guzti hauek zu haurtxoa izan zinen garaikoak dira. Baina zer gertatu zen gu haurtxoak izan baino lehenago??

AMAK: Nik ez dut gogoratzen!... eta zuk? (aitari galdezka)

AITAK: Nik ere ez..... eta zuk? (haurtxo jaunari galdezka)

HAURTXO JAUNAK: (haur-kotxea eta jostailua atereaz eta beraiekin jostatuz)  
Nik.....Broooooommmmmnnnn.....Broooooommmnn.....Segi nazazue lasai eta ixil - ixilik  
....eta nik kontatuko.....Brrroooooommmmmnnnn.....

Haurtxoaren oroitzapenen kutxa bat egitea nahiko idea erakargarria da, eta geletan egin dezakegu.

Horretarako haurtzaroarekin lotuta dauden elementu eta gauzak bildu eta kutxa batean sartu egingo ditugu.

Taldean egin dezakegu, kutxa bakar batekin, eta kutxa horretan ume guztiak ekarritako elementuak sartuko ditugu. Gauza bakoitza aitzaki bihurtuko da, haiekin beraien oroitzapenei, gustokoei, fantasiei buruz hitzegiteko aitzakia.

Gurasoak ekintzan bertan sar ditzakegu. Haien laguntzaz, ume bakoitzak bere haurtxoaren oroitzapenen kutxa sortuko du. Goian genion bezala, arakaketa horretan gogorapenak, esperientziak, irudiak elkarrekin birpasatzeko aukera izan dezakete, guraso eta seme-alabeen artean. Oroitzapenen kutxak gelara eraman daitezke beste umei erakuzteko.

## 2. IRAKASLE-HAURTZO JAUN/ANDEREAREN OROITZAPENAK.

Haurtxo Jauna heldu bat da, eta oroimenaren ordezkaria da. Ikuslegoa bera jaio baino lehen zer gertatu zen ikusteko iraganean atzera baino atzerago bidai bat egitera gonbidatzen du.

Irakasleak jolas hori bere ikasleei proposatu diezaieke.


Haurtxoak izan zineten garai horretako irudiak, argazkiak, marrazkiak, objektuak..., gelara eramatea proposatzen dizuegu. Pertsona guztiak, haundienak, indartsuenak, denak, egun batean haurtxoak izan direlako. Zaindu eta mimatu zituzten aitatxo eta amatxo izan dituzten haurtxoak.

Helburu bikoitza du proposamen honek:

Helduentzat, gure oroitzapen maitatuenak berreskuratzeko gure haurtzarora bueltatzea proposatzen digu, gero gure ikasleekin elkarkomunean jartzeko.

Umeentzat, oso opari polita izango da, irakasleak umea izan zeneko gertaerak eta oroitzapenak haiekin elkarkomunean jartzen baditu.

Bukatzean, irakasle-haurtxo jaun/anderearen erretratoa edo marrazkia egitea proposa diezaiekegu umeei, edota ekintzarekin hasi baino lehen proposa dezakegu, haien irudimena eta sormena estimulatzeko.



*“Bebé Gigante”, Sagastizabal, Juan-arena.*

### 3. KOX-KOX-i BURUZKO OROITZAPENAK ETA NORBERAREN OROITZAPENAK.

KOX-KOX ikuskizunaren gaiak umeak hitzegiten eragiten du, bai ikuskizunari buruz, bai norberaren historioari buruz.

Ikuskizunaren eskenetako irudi desberdinak erabiliz (ikus datorren argazkiak), Haurtxo Jaunaren historioaren haria aurkitu dezakegu eta norberaren historioarekiko loturak arakatu ditzakegu.

Ikertzeko bideak ugariak dira. Erakargarriak iruditzen zaizkigun bide desberdinak proposatzen dizkizuegu. Zuek asmatutako beste bideak gehi ditzakezue, zuen taldearen behar eta emankizun guztiak entzunez.

- *Amatxoek gurasoak badituzte, aitatxoek bezala. Amatxo guztien ama eta aitatxo guztien aita izan ote zen? Nolakoak izango lirateke?*
- *Aitatxoak eta amatxoak, nola ezagutzen dira?*
- *Zergatik izaten dituzte haurtxoak aitatxoek eta amatxoek?*
- *Zuen amaren sabelean zinetenean gogoratzen al duzue? Itxi begiak ondo gogoratzeko.*
- *Haurtxoek ba al dute mundura etortzeko gogoia?*

Ziur proposamen hauekin zuen ikasleen irudimena eta sormena piztuko direla. Benetako oroimenak asmatutako oroimenekin batera aterako dira. Zein den zer jakitea ez da erreza izango. Ez du axola, garrantzitsuena sortutako interesa da..

Nor ausartzen da txikiek ez dutela pentsatzen esatera?



# ***HAURTZAROARI BURUZKO HAUSNARKETAK***

---

## **1. ETA HAURTXOAREN AMONAREN AMATXOREN AITA UMETXO BAT ZENEAN?**

Erdi Aroan, haurtasun sentimendua ez zen existitzen. Izan ere, ume txikiak ez zuen leku garrantzitsurik betetzen, desager baitzitekeen, eta gero, hilkortasun handiko aldi hori gaingitzen zuenean, helduekin bat egiten zuen.

Ondoren, zazpi urterekin, besteren zerbitzura lan egitera bidaltzen zen: horrela, mirabetza eta ikaskuntza -oso heziketa orokorra- nahastu egiten ziren.

Egoera horretan, umea oso goiz aldentzen zen bere familiarengandik. Gainera, odol loturek ez zuten talde bakarra osatzen, baizik eta bi, ezberdinak eta zentrokideak: familia (gure ezkontza-familia) eta leinua (arbaso beraren ondorengoak, elkarrekin solidarioak izan behar zutenak).

Erdi Aro osoan zehar, leinuak eragin handia izan zuen beti gizabanakoaren babesleku gisa. Estatua nahikoa ez zenean eta bakea eta oparotasuna bermatzen ez zituenean gizabanakoak leinuaren babesa bilatzen zuen. Erakundeek ahalbidetu bezain pronto, leinuak familiaren gainean zuen eragina galdu zuen.

Horrela hobeto ulertzen da zergatik ezin zuen familiak gurasoen eta seme-alaben artean sentimendu existentzial sakonagoa garatu. Ez gurasoek beren seme-alabekiko maitasun txikiagoa sentitzen zutelako, baizik eta beraientzat baino familiaren egintza komunean parte har zezaten zaintzen zituztelako.

Leinuaren eragina pixkanaka gutxitzeak eta eskola heziketaren garapenak sortarazi zuten haurtasun sentimendua.

Eskolak gurasoengana itzuli zuen umea, nahiz eta hasiera batean ikastetxeak urruti egon (gutxi zirelako) eta banantze une luzeak ekarri. Bestalde, eskolaratze honek ez zituen ume guztiak barne hartu, neskek denbora luzean zehar ez zuten eskolaratzeko aukerarik izan. Biztanleriaren tarteko geruza, jatorri burgesekoa, izan zen eskolaratzeko aukeraz lehenago aprobetxatu zena; nobleziak XVIII. mendera arte itxaron zuen; langile eta artisauen munduari dagokionez, ikaskuntza ia betidanik existitzen zen.

Haurtasun sentimendua XVI. mendean agertu zitzaigun lehenengo aldiz "mimatze" kontzeptuari esker: umea, bere tolesgabetasunagatik, bere ontasunagatik eta bere graziagatik, helduentzako dibertimendu eta jostaketa iturri bilakatu zen. Horrek kritika zorrotzak ekarriko zituen XVII. mendean: hurrei eskainitako arreta maila jasanezintzat jotzen zen.

XVII. mendeko moralista eta hezitzaileen artean XX. mendera arte heziketaren oinarri izango zen beste sentimendu bat sortu zen orduan. Hurrekiko eta beren bereizgarriekiko atxikimendua ez da dagoeneko dibertimenduaren bidez azaltzen, baizik eta interes psikologikoaren eta kezka moralaren bidez. Umea familiari gizartean aurrera egitea ekar diezaiokeen ezkontza eta lanbide espekulazioaren tresna ere izan ohi da. Garai hartan, eta hori gainera Erdi Arotik gure mendearen hasierara arte, bularreko


umea troxaturik bizi zen urtebetea bete arte "bere gorputz txikiari itxura zuzena emateko eta zutik egoten ohitu zedin". Horela, bere troxetan bildurik iltze batez eskegita utz zitekeen landetxeko areto nagusian arriskuetatik eta krakatik urrun izateko.

Heriotz arriskuen kontra joateko ohitura berri bat zabaldu zen hirietan barrena eta batez ere burgesen artean: umeak inude bati ematen zitzaizkion landan hez zitzan. Usadio horrek bizirik iraungo zuen XIX. mendearen amaiera arte higiene eta asepsia kontuetan izandako aurrerapenak abere-esnea arriskurik gabe erabiltzea ahalbidetu zutenean. Baina, arian-arian, inudea alde batera uzten hasi zen, ama eta seme-alabak berriro elkartzuz.

XVIII. gizaldian, etxea egokitu eta ohiturak zuzentzean, garrantzi handiagoa hartu zuen gurasoek eta seme-alabek bakarrik osaturiko familiaren intimitateak. Haurren osasun eta heziketa arazoak seriotasunez planteatzen dira. Hala ere, bularreko umeen heriotza tasak oso altua izaten jarraitzen du. Hauxe da gurasoen maitasuna eragozten duen azken oztopoa, aita-amak ez baitira umetxoa maitatzen hasiko lehenengo urtea bete duen arte.

Familiaren eta, beraz, haurtasun sentimenduaren bilakaera hori, denbora luzean zehar noble eta burgesen artean baino ez zen eman. Ez zen aldaketa handirik izan gaur egun arte, baina, pixkanaka biztanleriaren beste geruzetara zabaltzen joan zen, ordea. Familia, orduan, mundutik aldentzen da, XVIII. mendean artean oso trinkoak ziren gizarte harremanetatik urruntzen da. Familiak ahalegin guztia egingo du seme-alabak sustatzeko, hauek familiaren handinahi kolektiborik defendatu beharrik izango ez dutelarik.

XX. mendean, medikuntzaren aurrerapenei eta higienearen hobekuntzari lotutako umeen heriotza-tasaren beherakadak familiaren erdigunea izateko eta paper nagusia betetzeko aukera eman zion haur txikiari. Bere eskumenen inguruko hainbat eta hainbat ikerketa piztu ziren, zein baino zein liluragarriagoa. Baina, gurasoen seme-alabekiko ohitura eta portaerak atzo eta egun desberdinak badira ere, ez dago garai batean edo bestean aita-amen maitasuna zalantzan jartzera bultzatzen gaituen ezer. Ezta biztanleria oso baten bihotzetan sartzen den agiririk ere. Oso jende guztik zeukan bere haurtxoez zer sentitzen zuen formulatzeko gai izateko adinako heziketa maila eta beren jokaera garaiko kulturak eta gizarteak zehazten zuten.





## 2.- BENETAKO BEGIRADATIK BENETAKO HITZERA

Mendearen hasieratik, txikiaren beharrei eta eskumenei buruzko aurkikuntza psikologiko eta fisiologiko guztiek bularreko umearen garapen globalerako funtsezkoa den datu bat ezagutzera ematen lagundu dute. Datu hori hauxe da: maitasuna, lotura afektiboa. Haurtxoarentzat jatea bezain garrantzitsua da maitatzea. Baina maitasuna, ordea, ez da balore segurua: familiako gertaeren arabera, lokarriak sendotu edo lasaitu ahal dira. Umeak oso goizetik bere ahaideekin eraikitzen lortzen duen aparteko lotura hori bizitzari lotzen duen lokarria ere bada.

Hortik umeek beren haurtzaroan zehar egiten dituzten funtsezko galderen garrantzia: zein da nire sustraiak, zein da nire jatorria?

Bi urte eta erdi edo hiru urte dituenetik, umea lehen/gero nozioaz jabetzen da: "aitatxo eta amatxo bazeuden hemen lehen... eta txikiak izan ziren haiek ere ni bezala". Sarritan argazkiei esker edo aitona-amonon bitartez gertatu ohi da.

Hiru urte eta erdi edo lau urteko umeari, galdera hau datorkio burura: "Zergatik nago hemen?". Gero aldi edipikoa dator: "nire gurasoen desioaren emaitza naiz". Azkenik, umea konturatzen da egunen batean berak ere seme-alabak izango dituela, eta hauek ere, beren aldetik, seme-alabak izango dituztela.

Une honetan kokatzen da haurra denboran.

Horrela eraikitzen du umeak bere bizitzaren zentzua: zer bizitzen ari naizen jakiteko, sentitzeko gai naiz, ez da kasualitatea, harro senti naiteke horregatik...". Hori da bizitzarekin konektatzea, hori da bizitzarekiko leku bat topatzea.

Modu berean, gurasoek umea jaio baino lehen (amaren sabelean zegoenean) zer sentitzen zuten benetako hitzekin azaltzeko gauza badira, umeak bizitzeko kontzientzia izan baino lehen, oroitzapenez haraindi, existitu dela jakin dezake.

Bere historia dena delarik ere, hitz zuzenekin definitu behar da umeak bizi duena.

Hori da Françoise Doltok "Dena da lengoaia" bere lanean oso egokiro azaltzen duen ideia.

Dena eraikitzen da egiaren oinarriaren gainean eta ez hipokresiaren gainean. Hitz egokiak erabili behar dira, ume batentzat konplexuegiak iruditzen bazaizkigu ere. Ulertuko du egunen batean.

Onartu egiten dugu haurtxo baten eguneroko bizitzaren hitz sinpletarako (biberioia, hozkailua...).

Jaiotzean eta umetokian garatzen ari den bitartean umea zaintzean jartzen dugun arreta begirada erromantiko hutsa edo ume-erregearen irudia baino askoz garrantzitsuagoa da: izan ere, zainketa honen azpian gizateriaren historian bilakaera, eraldaketa eragiteko borondatea ere badago.

Umeari benetako begirada batez begiratzea, bere bizitzaren lehen momentuetatik dituen eskumenak ezagutzea, behar dituen funtsezko loturak errespetatzea, animatzen duten desioak ulertzea, bere benetako hitza aurkitzeko, bere zorientasunari begira eta besteekin osatzen eta osatuko duen gizartearen barruan daukan onena emateko aukera eskaintzea da.